**UDAL-BATZARRA 2/02**

**UDAL-BATZARRAK, 2002ko URTARRILAren 31ean EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

**PARTAIDEAK:**

**ALKATEA**
Jose Mª Sarasola Goenaga

**ZINEGOTZIAK**
Pedro Mª Peñagarikano Labaka
Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Manuel Mª Odriozola Iruretagoiena
Mikel Errazkin Agirrezabala
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Mikel Zubillaga Galarraga
Jose Martin Uzkudun Agirre

**IDAZKARIA**
Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETAko Udaletxean, 2002ko urtarrilaren 31ean, arratsaldeko zortziak eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da ohizkanpoko bilkura egin asmoz Jose Mª Sarasola Goenaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Rafael Uribarren Axpe zinegotzi jaunak ezin etorria adierazi du egun berean Legebiltzarrean Pleno bat zuelako; eta neu, Nekane Agirresarobe Etxeberria, idazkaria.

## 1.- BILKURA PRESAKOTZAT JOTZEA.

*"Alkate jaunak adierazi du, batzorde bat osatu behar dela Asteasu eta Zizurkil udalen arteko mugak finkatzeko. Diputazioak bidali du idatzi bat esanez mugalerro honetako mugaune bat gure udalerrikoa dela. Gai honi buruzko batzordea izendatu ahal izateko deitu duela presazko bilkura hau.*

Bilkura presazkotzat jotzea botutara jarri da eta aho batez onetsi da.

Sometida a votación la declaración de urgencia de la Sesión se aprueba por unanimidad.

## 2.- ASTEASU ETA ZIZURKILGO UDALERRIETAKO MUGAKETAN PARTE HARTZEKO BATZORDEAREN IZENDAPENA.

Ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lehendakaritzako Departamentuak bidali duen idatzia, Asteasuko eta Zizurkilgo udalerrien arteko mugalerroa zehazteko prozedura administratiboari

Visto el escrito remitido por el Departamento de Presidencia de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa adjuntando la Orden Foral de fecha 30 de noviembre de 2001 con relación al procedimiento

| | |
|---|---|
| buruzko 2001eko azaroaren 30eko Foru Agindua eransten duelarik. Mugaketa-lanak 2002ko martxoaren 21ean hasiko direla adierazten da bertan. | administrativo de delimitación de los terrenos municipales de Asteasu y Zizurkil y por el que se acuerda fijar como fecha de inicio de las operaciones del deslinde y amojonamiento el día 21 de marzo de 2002. |
| Kontutan harturik, Asteasu eta Zizurkilgo Udalen aldetik eskaturiko mugaketak Anoetako udalerriko sailak ukitzen dituela; Udal-Batzarrak batzorde bat eratu behar du, Alkatea, 2 Zinegotzi, Udaleko Idazkaria eta teknikari batez osaturik. | Considerando que el deslinde solicitado por el Ayuntamiento de Asteasu y Zizurkil coincide con pertenecidos del término municipal de Anoeta, procede que por el pleno municipal se nombre una comisión constituida por el Alcalde, 2 Concejales, el Secretario de la Corporación y un técnico. |
| Hau honela izanik, partaideek aho batez honakoa erabaki dute: | Ante ello, se acuerda por unanimidad de los reunidos: |
| Lehenik.- Aipaturiko mugaketa-lanak aurrera eramateko Batzordea izendatzea, honako kide hauekin: | Primero.- Nombrar la Comisión para llevar a cabo las operaciones del deslinde señalado, con los siguientes miembros: |
| **Alkatea**: Jose Mª Sarasola Goenaga<br>**Zinegotziak**:<br>- Jose Martin Uzkudun Agirre (EAJ-EA koalizioko zinegotzia)<br>- Pedro Mª Peñagarikano Labaka (EH talde politikoko zinegotzia)<br>**Teknikaria**: Andres Oyarbide Antia, aparejadorea.<br>**Idazkaria**: Udalekoa. | **Alcalde**: Jose Mª Sarasola Goenaga<br>**Concejales**:<br>- Jose Martin Uzkudun Agirre (concejal coalición EAJ-EA)<br>- Pedro Mª Peñagarikano Labaka (concejal grupo político EH).<br>**Técnico**: Andres Oyarbide Antia, aparejador.<br>**Secretario**: el de la Corporación. |
| Bigarrenik.- Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Asteasu eta Zizurkilgo Udalei . | Segundo.- Dar traslado del presente acuerdo a la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamientos de Asteasu y Zizurkil. |

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak bilera amaitutzat eman du, iluntzeko zortzirak eta hamar minutu direnean; guzti honetaz, ni Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.